aikor.

Haz gaitezen



BAKARNE ALTONAGA BEGOÑA

Generoa ikergai

Haz gaitezen
Gehiagora heltzeko.
Egin zaitez AIKORLAGUN
aikor.eus/babestu
aikor.

aikor.

Argitaratzailea:
TOTOAN Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorrizketan, Altzora, Darabilgu eta Tximintx komunitatea)

Zuzendaria:
Xabier Goienetxe

Erredakzio burua:
Itxaso Marina

Maketatzailea:
Aner Mentxaka

Publizitatea:
Ruth Bilbao (688 782 642)

Zuzentzaileak:
Iñaki Astorkiza
Oihana Astobieta

Kolaboratzaileak:
Alaia Saenz Orbe
Idoia Andres
Juanjo Ortiz
Irati Gañan Rodriguez
Joanes Camara
@txiribita_mundi
Iñaki Olabarrieta
Jose Angel Mentxaka

Inprimategia:
Gertu

Banaketa:
Eragin

Ale kopurua:
8.000

Lege gordailua:
BI 137-02 ISSN 1578-9322

aikortxori@aikor.com
688 864 135 · 747 406 561

aikor aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota iritzien erantzukizunik.

CC BY-SA 3.0
Aitortu - Partekatu Berdin 3.0 Moldatu gabea

2015 Bikain euskaraaren kalitate ziurtagiria

SUMARIOA

4 Iritzia
4 Berri laburrak
12 **Saioa Goikoetxea Markaida**
14 **Mundua edertzen**
16 **Kichwakamak Sisariy Elkartea**
18 **Txoriberri**
20 **Bakarne Altonaga Begoña**
24 **Bero-uharteak Txorierrin**
26 **Uribe On tour 2025**
DIRUZ BABESTUTAKO EDUKIA
28 **1936ko gerrako irudi berriak**
30 EMAUS
31 Neurodoinuak
Burmuina doinutzen
32 Menditik Patxadaz
Memoria historikoa Markinara bidean
34 Herbarioa
Mihilua
36 Sukaldaritza
37 Denbora-pasak
38 **Suak argitu du gaua**

DIRUZ LAGUNDUTAKO ALDIZKARIA

Txorierriko Mankomunitatea

BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia Diputación Foral de Bizkaia

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA

Kontraesana

ALAIA SAENZ ORBE
Filosofia irakaslea

Kontraesankorrak gara, zalantzarik gabe. Neurri edo maila ezberdinetan, denok borrokan ari gara gure kontraesanekin. Irakasleok hainbat aldarri eta kexa ditugu, baina gure seme-alabez ari garenean… Langile gisa gure eskubideak defendatzen ditugu, baina patroi bihurtzen garenean… Iraultzailetzat dugu geure burua, baina "hau beti egin dugu horrela" esaten dugu; antirrazistak izan nahi dugu, baina "mejillón cebra" deitzen diegu alboko herritik datozenei.

Greziar filosofo klasikoek kontraesana, aldaketa eta gatazka negatibotzat jotzen zuten eta "platonismo herrikoiarekin", kristautasunarekin, batera koherentzia, armonia, oreka… bultzatu nahi izan zituzten. Baina nolakoa da natura benetan? Nietzscheren ustez, helburu edo ideia horrek Mendebaldeko kultura gaixotu zuen, bizitzaren eta naturaren esentzia bera ukatu zuelako; bizitza kontraesana, kaosa eta gatazka ere badelako.

Gainera, kontraesanaz, kaosaz eta gatazkaz kontzientzia hartzea beharrezkoa da eboluzionatzeko, orduan bakarrik lortzen baitugu aldaketa eta hobekuntza. Azken finean, klasikoek nahi zuten helburura hurbiltzeko, gure natura kontraesankorra besarkatu besterik ez dugu.

BERRI LABURRAK

Giro itzela Lezamako Txakolinaren Egunean

Ekainaren 1ean, Lezamako Txakolinaren Eguna ospatu zen 22. aldiz. Bertako Udalak antolatuta, herriko lau upategietako txakolina dastatzeaz gainera, baserriko produktuak erosteko aukera egon zen bertan, hala nola ortuariak gazta, taloa eta ogia. Era berean, hainbat ekintza egin ziren azoka girotzeko: kalejira, Kurutze dantza-taldearen eta Ekidazu abesbatzaren saioak, umeentzako tailerrak eta Taberna Ibiltariaren ekitaldia. Bestalde, aurten Lezamako Baserritarren Elkartea izendatu dute herriko txakolinaren enbaxadore, 100 urte bete ditu eta. Bestalde, jendetza batu zen azokan eta giro ezin hobea egon zen. Lezamako Udalak jakinarazi zuenez, 650 kopa saldu ziren eta ekoizleek ondo saldu zituzten euren produktuak.

BERRI LABURRAK

2026ko partaidetzazko aurrekontuak martxan daude Derion

Derioko Udalak partaidetzazko aurrekontuen prozesu berri bat jarri du abian, "bizilagunen lankidetzari eta inplikazioari esker udalerria eraldatzen jarraitzeko helburuarekin", azaldu dute prentsa-ohar baten bidez. Udal-gobernuak 120.000 euro gorde ditu, "herritarrek udalerriko bizi-kalitatea hobetzeko planteatzen dituzten premiei erantzuteko eta horiek gauzatzeko".

Lehen fasea ekainean egin da, eta bertan herritarren proposamenak jaso dituzte. Bigarren fasean, ekainaren 28tik irailaren 5era bitartean, teknikoki aztertuko da proposamenen bideragarritasuna, eta kontuan hartuko da alde batetik udalerrian hobekuntzak ekarriko dituzten, herritarren bizi-kalitatea hobetuko duten eta udal zerbitzuak hobetu ditzaketen proposamen garrantzitsuak eta interes orokorrekoak diren; eta bestetik, udalaren edozein jarduera-eremutako ideiak eta proiektuak diren, eta bideragarriak eta jasangarriak diren.

Irailaren 12an, bideragarriak diren proiektuen zerrenda argitaratuko da udaleko iragarki-oholean eta www.derio.eus webgunean. Irailaren 16tik 30era bitartean, azterketa-prozesuaren ondoren bideragarriak diren proiektuak edo proposamenak bozkatu ahal izango dira. Bozketa inkesta bidez egingo da www.derio.eus webgunean. Gainera, parte hartu nahi duten baina beharrezko ezagutza edo baliabiderik ez duten pertsonentzat, beren parte-hartzea errazteko, udalak haien esku jarriko ditu Gertuan Herritarrentzako Arreta Bulegoko eta Kultur Birikako langileak. Urriaren 15an argitaratuko dira bozketaren emaitzak, bai udalaren webgunean, bai udaleko iragarki-oholean. Derion erroldatutako 7 urtetik gorako edonork parte hartu ahal izango du prozesuan.

Txorierriko etorbidea denboraldi batez itxi da trafikorako Zamudion

Zamudioko Udalak jakinarazi duenez, sare orokorreko bi ur-hoditeria lekuz derrigorrean aldatu behar dira, 2. bizitegi-egikaritze unitateko C blokeari dagozkion 16 etxebizitza eraiki ahal izateko. Lekualdatze-lanen ondorioz, Txorierriko etorbidea trafikorako itxi da elizaren ondoko biribilgunearen eta Urbasa jatetxearen ondoko aparkalekuaren arteko tartean. Lanak ekainaren 23an hasi ziren eta, aurreikuspenaren arabera, bederatzi aste iraungo dute.

Udalak azaldu moduan, ordezko bideak dira industrialdeen arteko bideak: Torrelarragoiti-Ugaldeguren III; eta Carmen Mendiguren Abaunza kalea. Era berean, A2153, A2151 eta A3223 autobus-lineetako behin-behineko geltokiak kokatuko dira Bidekoetxe parkearen eta Truiondo zahar-etxearen artean.

Derio / Derioko seminarioa
48160 Derio (Bizkaia)
T. 944 545 147

Leioa / Iparragirre 80
48940 Leioa (Bizkaia)
T. 944 316 516

suitdelux.es
Ohea aldatzen dizugu. Bizitza aldatzen dizugu.

BERRI LABURRAK

Mercedes eta *Bakardade ikusezina* erakusketa Lezaman

Uztailaren 3ra arte "Bakardade ikusezina / Soledad invisible" erakusketa ikusgai izango da Lezamako udaletxean. Erakusketa BBKren ekimena da, eta gure gizartean gehien isilarazten den errealitateari buruzko hausnarketa egiteko gonbidapena egiten du: nahi gabeko bakardadea. Bestalde, Lezamako Udalak parte hartzeko ekintza bat egin zuen ekainaren 25ean, eta uztailaren 2rako ere antolatu du: bakardadearen horma-irudia. Ekintza 10:30etik 12:30era egingo da, eta herritar guztiek hartu ahalko dute parte.

"Bakardade ikusezina" erakusketaren protagonista Mercedes da, banku batean eserita dagoen 89 urteko emakume baten eskultura hiperrealista dena. Mexikoko Rubén Orozko artistak eginda, lana da bakarrik bizi diren milaka nagusiren sinboloa, eta eguneroko irudi indartsu baten bidez kontzientziak astintzea du helburu. Artistaren beraren esanetan, lana da "bakarrik hil den azken pertsona", eta adierazpen horrek izena eta aurpegia ipintzen dizkio ohikoegia den errealitate bati. Erakusketa BBK-k bultzatu du "Herriz herri" programaren baitan, eta xedea da Bizkaiko herritarrak sentikor bihurtzea nahi gabeko bakardadearen eragin fisiko, emozional eta sozialekiko. Gainera, adituen arabera, fenomeno hori larriagotu egin da pandemiaren ostean.

"Bera bezala, bakarrik bizi diren milaka nagusiren isla da Mercedes. Erakusketaren bidez, Lezamak bat egiten du errealitate hau ikusgai egiteko konpromisoarekin eta gizarte enpatikoagoa, lagunduagoa eta elkartuagoa bultzatzeko konpromisoarekin", adierazi dute prentsa-ohar baten bidez. "Lezamako Udalak aukeratzat jotzen du erakusketa, zaintzaren eta belaunaldien arteko loturaren inguruan kontzientzia sozial handiagoa sustatzeko".

Deriok bere eguzki-mapa jarri du martxan

Adimen artifizialean eta analisi energetikoan espezializatutako ImpactE enpresa teknologikoaren lankidetzan, Derioko Udalak eguzki-mapa interaktibo bat jarri du martxan, udalerriko biztanle bakoitzak bere etxebizitzaren, enpresaren edo merkataritza-lokalaren eguzki-aprobetxamendua ezagutzeko aukera izan dezan.

Azaldu duten moduan, tresna Europa mailako punta-puntako teknologian oinarritzen da, eta udalerriko teilatu guztiak aztertzen ditu, modu argian informazio hau emateko: eraikin bakoitzean zenbat eguzki-panel ipini ahal diren, zenbatetsitako energia-errendimendua, gutxi gorabeherako beharrezko inbertsioa, aurreikusitako urteko aurrezpen ekonomikoa eta instalazioak ekarriko lukeen CO_2 isurien murrizketa. Informazio hori guztia eskuragarri egongo da webgune publiko batean. Esan bezala, Derioko Udalaren helburua da "herritarrak ahalduntzea, herri-ingurunean iraunkortasuna erraztuko duten erabaki informatuak hartu ahal izateko".

Kukularrako zubibidean hobetze-lanak egingo dira uztailean eta abuztuan

Bizkaiko Foru Aldundiak jakinarazi duenez, uztailaren 14tik abuztuaren amaierara bitartean, Kukularrako zubibidea hobetzeko lanak egingo ditu, BI-30 errepideko 11+800 eta 12+050 kilometro-puntuen artean, La Avanzada eta Barakaldorako norabidean. Lan horietan, egungo uhinbiko bikoitza ordezkatuko dute, 80ko hamarkadaren amaierakoa baita, eta, haren ordez, euste-maila gorena izango duen pretil berri bat jarriko dute. Horretarako, galtzadaren kanpoaldeko erreia okupatu beharko da, eta hortik espaloia eta zerbitzu-hodia eraitsiko dira.

Uztailean eta abuztuan, Kukularrako zubiaren kanpoaldeko erreia ez da erabilgarri egongo, baina bigarren erreia utziko da Enekuritik datozen ibilgailuak bidean zuzenean sartu ahal izateko. Horrela, Txorierriko korridorea hiru erreitatik bi erreitara aldatuko da Enekuriko irteeran (12. irteera), eta Leioarako bihurgunea gaur egun egiten den tarte berean egongo da, baina errei bakarrekoa izango da.

Azaldu duten moduan, lanak udan egingo dira zirkulazio gutxieneko denboraldia delako. Hala eta guztiz ere, baliteke korridoreko eremu horretan auto-ilarak sortzea, bide horren gaitasuna murriztuko da eta. Foru Alldundiko sail teknikoak egindako simulazioen arabera, auto-ilara horiek lanegunetan sortuko lirateke 15:00etatik 16:30era bitartean, eta Artxandako lotuneraino iritsiko lirateke, baina ez Larrondokoraino. Kalkulatu dute batez beste 3 minutu luzatuko direla bidaiak.

BERRI LABURRAK

Pilota Goxua Txapelketaren finalak jendetza handia batu zuen Lezamako frontoian

Lezamako Pelota Klubak antolatuta, Pilota Goxua Txapelketa Herrikoia egin da aurten hirugarren aldiz, eta finalak ekainaren 6an jokatu ziren. Lehenengo mailan, Amarika III.ak eta Txaber Zabalak 22 eta 10 irabazi zieten Iñigo Rodriguezi eta Diego Rodriguezi; eta bigarren mailan, Andoni Aretxabaleta eta Ibon Atxutegi 22 eta 14 gailendu ziren Joseba Aslaren eta Igor Amarikaren kontra. Bestalde, Txaber Zabala txapelketaren pilotaririk onena aukeratu zuten.

Lezamako pilotalekua leporaino bete zen barikuan, pilotarien jokoaz gozatzeko. Jaime Uriarte pilota-klubeko presidentearen esanetan, aurreko edizioetan moduan, aurten ere giro itzela izan zen partidetan bertan zein partiden ostean. Izan ere, Pilota Goxua Txapelketa Herrikoiak jakin-min handia sortzen du lezamarren artean, eta herritar asko eta asko hurbiltzen dira frontoiraino, parte-hartzaileak animatzera. Nora Artetxek eta Ekaitz Legarretak txapela ipini zieten bigarren mailako irabazleei, eta Jon Ander Aurrekoetxea alkateak eta Uriartek, lehen mailako irabazleei. Partidak amaituta, jaitxoa egin zuten, eta taloak eta musika egon ziren. Parranda ordu txikietara arte luzatu zen.

BERRI LABURRAK

Palestinako emakume nekazari bati elkartasuna adierazi diote Larrabetzun

EHNE Bizkaiak eta La Via Campesinak antolatuta, ekainaren 17an eta 18an Nekazari eta Herri Feminismoko Eskolen Nazioarteko Topaketa egin zen Artzentalesen, eta ekainaren 19an nazioarteko nekazari mugimenduko emakume baserritarren eta gizarte-mugimenduen arteko solasaldia egin zen Larrabetzuko Hori Bai gaztetxean. Palestinako emakume baserritar bat topaketan parte hartzekoa zen, baina azken egunetako gertaera belikoak direla-eta ez du Zisjordaniatik irteteko aukerarik. Larrabetzu Palestina Elkartasun taldeak ekitaldia egin zuen plazan emakumeari eta palestinarrei elkartasuna adierazteko.

"Baratzeak nola suntsitzen dizkieten ikusten dute, beraien olibondoak nola mozten dituzten, bere umeek gosez negarrez entzuten dituzte, etorkizuneko belaunaldiak erailtzen dituzte, laguntza humanitarioaren murrizketa ankerra jasaten dute... Hitz batez esanda, genozidioa", irakurri zuten. "Zoritxarrez, Gazan eta Palestina osoan gertatzen ari dena ez da tragedia humanitarioa bakarrik; nazioarteko komunitatearen porrota da, beren elite politiko eta ekonomikoen interesen gatibu. Munduak behin eta berriz Palestina herriari huts egitea ez da berria; ez dezagun ahaztu aurten 77 urte bete direla Nakbatik, non hasiera eman zitzaion gaur egun bizi duten egoera izugarriari. 1948 urtera atzera egin behar dugu, israeldarrek asentamendu berriak sortzeko Palestinako 700.000 pertsona euren etxe eta lurretatik kanporatu zituzten egunera. Gure herrien artean kilometro asko dauden arren, beraiekin gaude une oro, eta ez dugu etsiko egoera krudel hau salatzeko ahaleginean. Palestinako herria jasaten ari den genozidio anker honekin amaitzea exijitzen dugu. Doakie hemendik gure elkartasuna eta besarkadarik beroena".

BERRI LABURRAK

Irisgarritasun unibertsaleko planari begira ekarpenak jasotzeko inkesta zabaldu da Derion

Derioko Udalak inkesta bat jarri du martxan herritarrek espazio publikoen, udal-eraikinen eta tokiko zerbitzuen irisgarritasunari buruzko iritziak eta esperientziak partekatzeko aukera izan dezaten. Prentsa-ohar baten bidez azaldu dutenez, Irisbide enpresa espezializatuarekin batera garatzen den Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integrala (PIAU) egiteko partaidetza-prozesuaren parte da inkesta.

Inkesta online egongo da eskuragarri www.derio.eus udalaren webgunean, baita paperezko formatuan ere udaletxean eta Kultur Birikan, ekainean, uztailean eta abuztuan. Horien bidez, herritarren ekarpenak bilduko dira, azterketa teknikoa eta landa-lana osatzeko. Gainera, prozesuak aurrez aurreko jardunaldiak ere izango ditu, eta bertan, herritarrek beren ikuspuntuak zuzenean adierazi ahal izango dituzte, eta, aldi berean, PIAUren aurrerapenen berri emango da. Deialdi guztiak udalaren ohiko kanalen bidez iragarriko dira. “Udalak herritar guztiak parte hartzera eta beren proposamenak partekatzera animatzen ditu, Derio irisgarriago eta inklusiboago bat elkarrekin eraikitzeko, bereziki desgaitasuna duten pertsonentzat, mugikortasun urrikoentzat edo behar bereziak dituztenentzat”.

BERRI LABURRAK

Ohi moduan, paella txapelketa ere egingo da.

Goxua Txapelketa, Goitioltzako jaietako nobedadea

Jai-egitaraua prest du Goitioltzako jai-batzordeak. Ohi moduan, ekintza-sorta zabala antolatu du, eta auzotar guztiek ederto pasatuko dute uztailaren 11tik 13ra bitartean. Gainera, jaiek nobedadea ekarriko dute aurten: Pilota Goxua Txapelketa.

Txapelketa uztailaren 11an egingo da, 18:00etan, eta bertan izena emateko azken eguna uztailaren 6a izango da. Horretarako, mezua bidali behar da Goitioltzako jai-batzordearen Instagram kontura: @goitioltzako_jai_batzordea. Hamazortzi urtetik gorako lagunentzako txapelketa da, eta bertan Lezaman bizi direnek edo erroldatuta daudenek hartu ahal dute parte, baita Lezaman jaio direnek ere, baina ez da federaturik onartuko. Gehienez 16 parte-hartzaile egongo dira, eta partidak banaka jokatuko dira. Zozketa 17:30ean egingo da, eta txapelketa 18:00etan hasiko da. Partidak 10 tantora jokatuko dira.

EGITARAUA

uztailak 11, barikua

18:00 **Umeen jolasak eta Goitioltzako Goxua Txapelketa**

19:30 **Dultzaineroak**

20:00 **Txupinazoa**

21:00 **Xaibor**

23:00 **Dj Puntz**

uztailak 12, zapatua

10:00 **Mahai eta aulkiak banatzea**

10:30 **Bizikleta martxa,** Zorribikek antolatuta

12:00 **Kurutze dantza-taldearen emanaldia**

13:00 **Paella txapelketan izena ematea**

14:00 **Paellak aurkeztea eta sariak ematea**

17:00 **Umeentzako ur-puzgarriak** (eguraldiaren arabera)

17:30 **Nagusientzako lehiaketa**

20:00 **Txerokiak**

22:00 **Atrikipunk taldearen kontzertua**

00:30 **Dj Zatzaz**

Uztailak 13, domeka

13:00 **Bertso txakolin-dastatzea**, Zorrizketan euskara elkarteak antolatua. Bertsolariak: Onintza Enbeita eta Arkaitz Estiballes

Jaiak amaitzea

Zozketaren irabazlea:

Gorka Zarate Gorostiola
Zorionak!

BERRI LABURRAK

Karmele Mitxelenak bigarrenez irabazi du Mikel Zarate saria

Karmele Mitxelenak idatzitako *Benetako zirkua* nobela laburrak irabazi du 2025eko Mikel Zarate haur literatura saria. Hala erabaki du Leire Bilbaok, Maribel Aiertzak eta Xabier Mendigurenek osatutako epaimahaiak, eta berak eramango du 4.000 euroko saria. Liburua, berriz, Elkar argitaletxeak kaleratuko du. Aipatu beharra dago bigarren aldia dela Mitxelenak Lezamako idazlearen omenez sortutako saria irabazten duela, 2022n ere irabazlea izan baitzen *Marrubizko uda* lanari esker.

Saria Lezamako Udalak eta Elkar argitaletxeak antolatu dute 15. aldiz, eta, jakinarazi dutenez, aurtengo ediziora zazpi lan aurkeztu dira, eta horien artean Mitxelenak idatzitako kontakizuna hautatu du epaimahaiak. "*Benetako zirkua* eleberri labur bat da, herri txiki batera zirku italiar bat iritsiko dela-eta, bertako haur-talde batengan piztutako sentimenduak eta biziko dituzten abenturak kontatuko dituena, samurtasunez, umorez eta kritika sozial ukitu batzuekin".

Karmele Mitxelena Etxebeste 1988an jaio zen Oiartzunen. Sari ugari irabazitakoa da, bai bertso idatzietan bai literaturan, haurrentzako nahiz helduentzako narratiban. Marrubizko uda lanaz gainera, bere liburuen artean aipa litezke *Haragizko mamuak* (ipuin bildumen Kutxa saria, 2022) eta *Zorionа edo antzeko zerbait* (Augustin Zubikarai saria 2024 eta urte bereko narratiba lan onenaren Kritika Saria).

Kalistenia parkea Lezaman

2025eko parte-hartzeko aurrekontuetara aurkeztutako egitasmoen artean, kalistenia parkea atontzeko eskatu zuten 10 urtetik 17urtera bitarteko gazteek, eta hura hain zuzen izan da aukeratutako proiektuetako bat. Kalistenia parkea duela gutxi inauguratu da eliza ondoko parkean, eta lorategiko eta aisialdiko gunearen kirol-osagarri moduan integratu da. Lezamako Udalak jakinarazi duenez, 12.882,39 euro ipini ditu kalistenia parkea atontzeko.

Bidegorriaren lanak hasi dira Derion

Derioko Udalak hasi ditu Mungialde etorbidean zehar Herriko Plaza eta Landa kalea lotuko dituen bidegorri berriaren lanak. Azaldu moduan, azpiegitura berriak bizikletentzako erreiak eta oinezkoentzako guneak izango ditu, eta tren-geltokia eta Bizipark-a udalerriaren iparraldean dagoen bizikleta-sarearekin lotuko ditu. "Era berean, lehenagoko bizikleta-bide batzuetako jarraitutasun- eta konektibitate-gabeziak konponduko dira, seguruagoa eta jasangarriagoa den mugikortasun-sarea sendotzeko". Lanak abendura arte luzatuko dira. Udalak 1.070.000 euro ipiniko ditu egitasmoa egiteko: 194.100 euro Europako Batasunak finantzatuko ditu, eta gainerakoa, Derioko Udalak.

Herriko Plazan lanean dabiltza ekialdeko alboa eta tren geltokirako sarbidea egokitzeko, eta bidegorri berria handik abiatuko da. "Eredu intermodala ardatz hartuta, eremu hau espazio modernoagoa eta irisgarriagoa bilakatuko da. 629.200 euroko inbertsioa duela, esku-hartze honi esker umeentzako jolasgunea berrituko da, adinekoentzako ariketa-gune bat ipiniko da, eta irisgarritasuna, argiztapena eta landarediaren integrazioa hobetuko dira inguruan".

Hemen eta orain bizi

SAIOA GOIKOETXEA MARKAIDA
Sortzailea

Bi Saioa daude: COVID-19 aurrekoa eta birus ostekoa, eta azken hori da hemen eta orain dagoena. Berrogeita bi urteko loiuztarra andereño da ofizioz, eta sortzailea terapiaz, baina batez ere bizitzari baikor begiratzen dion emakume ausarta da, zeren eta, bizitza batzuetan garratza den arren, ahalegin handiak egiten baititu momentua hemen eta orain gozatzeko.

T ITXASO MARINA ANER MENTXAKA

Alaba txikiak izan ezik, etxeko gainerako guztiek COVID-19 birusa harrapatu zuten 2021eko urtarrilean. Saioa aldebiko pneumonia zuela ospitaleratu zuten eta 10 egun eman zituen bertan. “Azken egunetan odola izan nuen gernuan, baina alta eman zidaten. Hurrengo egunak gogorrak izan ziren, eta ospitalera itzuli behar izan nuen, ezin nuelako txizarik egin eta min handia nuelako”, kontatu digu loiuztarrak. Probetan ikusi zuten bere maskuria ez zela husten. “Irakatsi zidaten zunda sartzen. Bestalde, Gurutzetako urologoak esan zidan pilulak hartuta hobekuntzarik izan ezean maskuria kendu beharko lidaketela, eta poltsa jarri. Shock itzela izan zen, eta bigarren iritzia eskatu nuen”.

Basurtuko ospitalera bideratu zuten orduan. “Azaldu zidaten Donostian neuromoduladorekin probak egiten zebiltzala eta nire espedientea bidaliko zietela ea programan onartzen ninduten. Neuromoduladoreak taupada-markagailuen antzekoak dira, baina gerrian ipintzen dira, sakro inguruan, eta bizkar-hezurrera lotzen dira, nerbioetara, burmuinera informazioa bidaltzeko”. Programan onartuta, luze itxaron behar izan zuen lehen neuromoduladorea ipini zioten arte. “Gogorra izan zen, anestesiarik gabe egin behar delako. Izan ere, kablea sartzeko, estimulua dagoen lekuan sastatu behar da, eta lokartuta egonez gero, ez dago estimulurik. Hasieran behin-behinekoa da, eta gorputzak arazo barik onartzen badu, gorputz barruan sartzen dute. Nik bi neuromoduladore ditut ipinita: bata eskuinaldean, eta bestea ezkerraldean. Lehenengoa ipini zidatenean, hobera egin nuen apur bat, baina ez nuen zunda utzi; bigarrena jarri ondoren lortu nuen zunda erabiltzeari uztea”.

> **“Balantzan ipini behar ditut ezohiko plan baten ondorio onak eta txarrak; hau da, hausnartu plan horrek merezi duen”**

Nolanahi ere, loiuztarrak oso errutina zorrotz bati jarraitu behar dio ondo sentitzeko. “Goizean altxatu eta komunera joan, ordutegi zehatza izan, ordu bietan bazkaldu, arratsaldean atsedena hartu, lasai egon, ez egin ez kirol askorik, ez esfortzu handirik... Errutina horri jarraitzen ez badiot, adibidez, lagunekin plana dudalako edo egun-pasa

egiten dudalako, ondorioa izan daiteke zunda berriro ipini behar izatea, ohean gelditu, mina izan... Horregatik, balantzan ipini behar ditut ondorio onak eta txarrak; hau da, hausnartu senideekin edo lagunekin ezohiko plan batez gozatzea merezi duen".

Maskuri-arazoak nolabait konponduz joan diren arren, Saioak beste gaixotasun batzuei ere egin behar die aurre. "Medikuek esan didate beharbada osasun-arazo horiek latente izan ditudala eta COVIDak piztu dituela. Endometriosia, esaterako, areagotu zait eta umetokia kendu behar izan didate, digestio-arazoak ditut, baita arazo kognitiboak ere... Nerbio-sistema autonomoa galdu dut, eta hortaz, burmuinera ailegatzen zaidan informazioa, minari lotutako informazioa kasu, batzuetan erreala da, eta beste batzuetan ez dago ezer min hori eragiten duenik". Medikuek aipatu diotenez, Saioa bat egon da COVID aurretik, eta orain, birusaren ostean, beste Saioa bat dago, ezin dituena hainbat gauza egin. "Irakaslea naiz, eta, mediku-epaimahaiaren aurrean adierazi nuen moduan, ez naiz gauza nire ardurapean 3 urteko 25 ume izateko, bat-batean zorabiatzen naizelako, giharretako atrofia dudalako, takikardia izaten dudalako... Gauza da ni irakasle bokazioz naizela, eta gogorra da... Internista batek esan zidan behin beharbada nire buruari esan behar niola lehen egiten nuen hori guztia jadanik ezingo nuela egin; beharbada ez nuela okerrera egingo, baina hobera ere ez... Eta ikasi beharko nuela egoera berria onartzen".

"Hobera ez dut egingo, eta baliteke txarrera egitea, baina, beharbada, nagoen moduan ere gelditu naiteke, eta honekin bizi"

EGUNEAN-EGUNEAN

Hori egunean-egunean ikasten da. "Sei hilabeterik behin joaten naiz ospitalera tratamendua hartzera eta han gela partekatzen dut beste gaixo batzuekin, batzuetan oso egoera latzak pairatzen dabiltzan pertsonekin... Edo umeak ikusten dituzu... Eta pentsatzen duzu: *Hauek guztiak aurrera egiteko borrokan dabiltza; beraz, nola ez naiz ni borrokatuko?*". Hala ere, batzuetan bestelako akuilua behar da bizitzaren etapa gogorrei aurre egiteko, eta, familiak animatuta, Saioak sormena terapia bihurtu du gaixotasuna eramangarriagoa izan dadin. "Asko gustatzen zait marraztea eta irudiak sortzea; irudi abstraktuak egiten ditut. Orduan, pentsamendua horretara eraman, eta Hemen eta Orain egitasmoa sortu nuen". Izan ere, Saioa berriak momentuari ematen dio balio eta gauza txikiak nahiago ditu. "Sare sozialak nire egoera azaltzeko zabaldu nituen, baina, aldi berean, adierazteko batzuetan tontakeria mundu bihurtzen dugula eta ez diegula eguneko gauza onei erreparatu".

Ikasketa luzea da, jakina, eta Saioak ez du etorkizunean pentsatzen, momentua hemen eta orain delako. "Tratamendua ondo doa, zunda utzi dut eta: zunda ipinita oso gogorra da bizitza. Beste aldetik, hau bidaia luzea da, eta ikusi dut ondoan zeintzuk ditudan eta benetako besarkadak zer diren. Denbora luze eman dut ospitalean, 10 ebakuntza egin dizkidate bi urtean, eta egunero 22 pilula hartu behar ditut... Baina, esan didatenez, hau da nire momentua. Hobera ez dut egingo; txarrera? Baliteke baietz, baina, beharbada, nagoen moduan ere gelditu naiteke, eta honekin bizi. Etorkizuna, beraz, ez da existitzen".

Mantra

Loiuztarra sormenetik hurbil ibili da beti. "Zentzurik ez duten marrazki linealak egiteak laguntzen dit kontzentratzen, eta lanean gustatzen zait ikasgela apaintzen. Hori dela eta, beharbada, lotu ditut artistikoa eta terapia". Hemen eta Orain egitasmoa sortzeko indarra topatzea ez zen erraza izan, baina bere txokoa atondu du, eta bertan, musikak lagun diseinatzen ditu kamisetak, poltsak, sudaderak, nezeserrak... Euskarazko mezu positiboak dituzten irudiak ere egiten ditu. "Izugarri lagundu dit ospitaleratze luzeetan. Gainera, azoketan eta topaketetan ibiltzen naiz batzuetan, eta jendea hurbiltzen zait galdezka eta mezua zabaltzen dela ikusten dut. Are gehiago, pertsona batek nik sortutako irudiaren tatuajea egin du, minbizia gainditu berri zuela. Konturatu naiz hemen eta orain bizitzea zein garrantzitsua den, bizitza momentu honetan delako, eta hemen, ez dakizulako bost minutu barru zer gertatuko den. Hemen eta orain da nire mantra, eta espero dut pertsona askorena ere izatea".

Egitasmoan parte hartu duten Unax, Uxue, Helene, Manex, Martin eta Enaitz.

T ITXASO MARINA ANER MENTXAKA

MUNDUA EDERTZEN

Ederragoa da mundua

Mundua edertzen ibili dira Zamudioko Bertoko elkartearen musikari gazteak. Izan ere, "Mundua edertzen" egitasmoaren baitan, Lapurdiko Makea herriko gazteekin batera landu dituzte kantak, erritmoak eta koreografiak. Maiatzaren 25ean, gainera, ikuskizun ederra egin zuten Zamudiotorren, egitasmoaren emaitza jendaurrean erakusteko.

"Mundua edertzen" egitasmoa Makea herrian sortu zen, eta harrezkero ikastaroak egin dira Iruñean, Ligin (Zuberoa) eta Baigorrin (Behenafarroa). Aurten Bizkaira zabaldu da, Zamudiora hain zuzen. "Aspalditik bagenuen halako zerbait egiteko gogoa, baina ez genuen momentu egokia topatzen, edo ez genuen ikusten erraza zenik horrelako jende gaztea harrapatzea", azaldu dute Itsaso Arrieta eta Katalin Zarate irakasleek eta proiektuaren arduradunek. "Makeako Jostakin elkarteko arduradunek deitu ziguten galdetzeko ea balitekeen gu hara joatea bertako umeei ikastaroa ematera. Baina pentsatu genuen guretzat interesgarriagoa zela hemengo jendea inplikatzea eta haien eta gure artean bide apur bat egitea; Iparraldea eta Hegoaldea batzea. Era berean, garrantzitsutzat jo genuen gure gazteak gure kulturan apur bat murgiltzea, ze kanten atzean informazio pilo bat dago, eta zer izan garen ulertu behar da gaurkoa ulertzeko eta geroa eraikitzeko".

Egitasmoan zazpi urtetik 16 urtera bitarteko 17 umek eta gaztetxok hartu dute parte: Bertokoko bederatzi ikaslek eta Jostakin elkarteko zortzi ikaslek. Unax Guerrero, Enaitz Alonso, Uxue de la Fuente eta Ariane Guerricagoitia dira Txorierriko partaideetako batzuk. Irakasleek zein ikasleek 10eko esperientzia izan dela adierazi dute. "Makeako lagunekin abestu dugu, dantzatu, gosaldu, afaldu, ondo pasatu, lo egin...", kontatu dute ikasleek. Iparraldekoak maiatzaren 24an eta 25ean izan ziren Zamudion, baina

hori baino lehen, Bertokoko ikasleek lau eskola-saio egin zituzten lau abesti hauek ikasteko: *Mundua eder*, *Alegrantziaren aldeko konjura*, *Ala kinkirrin* eta *Lurretik zeruraino*.

Irakasleen esanetan, ikasleek ez zituzten kantak aurretik ezagutzen. "Kantak Bertokokook aukeratu ditugu, landu ondoren, Makeako ikasleei irakasteko. Haien artean zerikusia duten abestiak izan dira. Azken batean, guztion artean mundua zein eder egiten dugun adierazten dute. Euskarak eta euskal kulturak batu gaituzte Makeakoak eta gu, eta kantetan isla dute euskarak, berdintasunak, lagunek…". Abestiak eta haien koreografia ikasita, maiatzeko azken asteburuan Lapurdikoekin batu ziren egitasmoa borobiltzeko. "Zapatu goizean ailegatu ziren. Hasieran apur bat urduri ibili ginen, ez genituelako ezagutzen", esan dute ikasleek. "Baina gero elkarri hitz egin genion, eta lasaitu ginen. Kantak eta koreografiak irakasteaz gainera, haiekin jolastu egin gara, paella jan, abestu, Kultur Etxean koltxoiak atondu elkarrekin lo egiteko, trikitia jo, gosaldu, entseatu, bazkaldu…".

Jai-giroan

Asteburua jai-giroan eman zuten, eta, hortaz, ederto pasatu zuten. Ikasitakoa senideen, Bertokoko gainerako kideen eta herritarren aurrean aurkeztu zuten domeka goizean. "Landutako lau kantez gainera, Makeakoek bi abesti kantatu zituzten; guk ez genekien horiek kantatuko zituztenik. Ondo pasatu genuen. Gainera, argiak-eta ipini genituen, eta nahiko emanaldi profesional irten zen. Gustura ibili ginen". Bazkaldu ostean, elkarri agur esateko unea ailegatu zen. "Abesteak elkartu gaitu, eta esperientzia ona izan da, beste herri bateko jendea ezagutu dugulako eta euskaraz pentsatu dugulako. Era berean, elkarri entzunez elkarrekin abesten ikasi dugu". Irakasleek ere oso positibotzat jo dute egitasmoa. "Guk ere asko ikasi dugu haiengandik. Adibidez, hasieratik izan dute argi geuk Makeakoak hartu behar genituela, eta ondorioz, oso harrera ona egin diete. Helduak direla erakutsi dute, eta egon behar denean badakitela egoten, onartzen eta errespetatzen. Oso anfitrioi onak izan dira, eta euren onena eman dute".

Lerro hauek idaztean oraindik harremanetan dabiltza Makeakoekin, eta ikasleek zein irakasleek esan digute hara joateko gogoa dutela eta esperientzia errepikatu nahiko luketela. Horretarako aukera noiz izango duten ez dakite, baina bitartean irribarretsu azaltzen dira bizi izandakoa gogora ekartzen dutenean. Izan ere, euskara eta euskal kultura lagun, euren aletxoa jarri dute mundua ederrago egiteko.



GUREAN IZAN DA

ITXASO MARINA ANER MENTXAKA

KICHWAKAMAK SISARIY ELKARTEA

“Jendeari kichwaz hitz egiten eta bizitzen irakatsi nahi diogu”

Maiatzean, eta Garabide elkarteak Kichwakamak Sisariy elkartearekin duen proiektuaren baitan, Ekuadorreko 10 kichwa aktibista izan dira Euskal Herrian, euren hizkuntza biziberritzeko estrategiei buruzko formazioa egiteko. Bisitatu dituzten egitasmoen artean Derioko Marikobaso Espazioa egon da, eta bertan, hain zuzen, izan dugu haiekin solasaldian ibiltzeko aukera. Melissa Túquerres gizarte-komunikatzaileak kontatu digu kichwaren egoera zein den eta hura biziberritzeko zein proiektu ipini dituzten martxan.

“Bidaiaren helburua da Euskal Herrian euskara biziberritzeko martxan ipinitako esperientziak ezagutzea eta horiek gure errealitatera egokitzea. Zuek ibilbide luzea egin duzue hizkuntza-biziberritzean, eta gu, aldiz, hasiberriak gara. Hortaz, guretzat oso baliagarria da zuen esperientziak ezagutzea, funtzionatu dutenak zein funtzionatu ez dutenak, eta kichwaren errealitatean ezarri ahal izatea”. Izan ere, euren hizkuntza desagertzeko zorian dago. “Ekuadorreko indigenak populazioaren % 7,7 ziren 2022an, eta haietatik bakarrik % 3,9k hitz egiten zuten hizkuntza indigenetako bat”. Azaldu digunez, gazteek ez dute kichwaz hitz egiten, eta hori bi arrazoi nagusirengatik da. Alde batetik, ez da familiako transmisiorik egon. “Kolonizazioak nahiko atzerapen handia utzi digu, eta gure lurraldean diskriminazio eta arrazismo handiak ere egon dira. Horrek hizkuntza galtzea ekarri du. Adibidez, nire etxean, aititek alabei debekatu zien kichwaz hitz egitea, berak arbuioa eta diskriminazioa jasan zituelako eta ez zuelako alabek ere jasatea nahi. Amak ere ez zigun kichwa irakatsi, ez nire ahizpei, ez niri, eta ondorioz, gaztelaniaz egiten zen testuinguru batean hazi ginen. Kontatutakoa etxe gehienetan gertatu da”.

Beste aldetik, Ekuadorreko Konstituzioan kichwa kulturarteko harremanetarako hizkuntza ofizial moduan jaso duten arren, egunerokotasunean ez da erabiltzen. “Kulturarteko hezkuntza elebidunaren baitan, esate baterako,

kichwaz egiten ez duten irakasleak kontratatzen dira. Beraz, kulturarteko eskoletan kichwa hutsean egin behar den ideia alboratzen da, eta kichwa-eskolak ematen dira, besterik ez. Gainera, bakarrik erakunde publikoen % 2,5ek ematen dute arreta kichwaz, eta ez dago kichwa edo beste hizkuntza indigena bat irakasteko programa instituzionalizaturik; kanpoko hizkuntzei lehentasun handiagoa ematen zaie". Túquerresek 17 urte zituela ikasi zuen kichwa. "Osabak gazte-gaztetatik lan egin du hizkuntza biziberritzeko prozesuetan, eta askotan lagundu diot eta ikusi dut beste herri batzuetako hizkuntzalariekin elkarlanean ibiltzen zela. Garabideren eskutik egin zen hizkuntza biziberritzeko lehen ikastaroan parte hartzera gonbidatu ninduen, eta gure hizkuntza berreskuratzea eta baloratzea zein inportantea den konturatu nintzen. Gizarte-komunikatzailea naizen arren, hizkuntza irakasteko proiektuan sartu nintzen. AEKrekin lan egin dugu lehen ikastunitatea sortzeko, eta komunikazio-ikuspegia zehazten ere lagundu digute".

"Bakarrik erakunde publikoen % 2,5ek ematen dute arreta kichwaz, eta ez dago kichwa edo beste hizkuntza indigena bat irakasteko programa instituzionalizaturik"

Sisaryi elkartearen baitan, Ekuadorreko mendilerroan, Andeetan, kichwa-eskolen sarea osatzea dute amets. "Ikastaroei esker proiektu bideragarria izatea nahi dugu, baina ez dugu ikastaro garestiak izatea nahi, interesdunak gogogabetu litezke eta. Ekuadorren badago kichwa ikasi nahi duten pertsonen-kopuru handia, eta horrek aukera emango digu materiala sortzen jarraitzeko eta bideragarriak izateko. Baina, hala ere, hurrengo hau ere ekarri lezake: titulua ematen duen erakunde hutsa bihurtzea. Gaur egun, erakunde askotan titulua eskatzen da bertan lan egiteko, baina gero ez da lanpostuetan erabiltzen. Guk ez dugu hori nahi: guk jendeari kichwaz hitz egiten eta bizitzen irakatsi nahi diogu". Hizkuntza irakasteaz gainera, ezinbestekotzat jotzen dute euren kultura irakastea eta helaraztea. "Kultura ere galduz joan gara: jantziak, ohiturak, dantzak, musika, arbasoen jakinduria... Horregatik, gurekin partekatu den komunikazio-ikuspegia oso garrantzitsua da, hizkuntza testuinguruan jartzea ahalbidetzen digulako, lurraldeetara zabaldu, eta kultura ere baloratu dezaten. Hizkuntza eta kultura eskutik helduta joan behar dira; bestela, zentzurik gabeko borrokak izango lirateke". Elkartearen beste helburu bat da helduen irakaskuntzak ez ezik, gainerako proiektu guztiek ere ospea izatea Imbaburako probintzian zein Ekuador osoan. "Baita gure kichwa indartzea ere, Ekuadorreko 13 hizkuntzentzat erreferentea izan dadin".

Konpromisoa

Euskal Herrian emandako egunetan bisitatu dituzte, besteak beste, AEK, Bizkaiko Foru Aldundia, Gernikako Batzar Nagusiak, Eusko Jaurlaritza eta zenbait ikastola. "Gehienbat jendearen konpromisoak eman digu arreta: euskaraz hitz egiten ez dutenak ere euskaraz egitearen alde daude, eta hori ez da Ekuadorren gertatzen. Era berean, diru-ekarpena egiten dute egitasmoek aurrera egin dezaten. Ekuadorren, berriz, beharbada testuinguru sozioekonomikoagatik, oso zaila da diru-ekarpenak lortzea eta boluntarioekin lan egitea. Gainera, ikusi dugu euskal erakunde publikoek euskara dirulaguntzen edo beste laguntza-mota batzuen bidez sustatzen dutela. Zuen esperientziek bultzatzen gaituzte hausnarketa egitera eta gure egitasmoen baitan zer ezarri ahal dugun pentsatzera". Túquerresen esanetan, Imbaburako Prefekturak euren egitasmoarekiko interesa adierazi du, eta dagoeneko kichwa-eskolen lehen pilotatzea dute erakunde horretan eginda. "Helburua ikasmateriala probatzea izan zen, eta hiruzpalau egunean ikasi zuten kichwaz agurtzen, euren burua aurkezten eta non lan egiten duten. Pozgarria izan da, materialak funtzionatzen duela ikusi dugulako. Horri lotuta, aipatu beharra dago gaur egun 10 kichwa-irakasle ditugula, eta, hortaz, lagun gehiago trebatu behar ditugu materiala sortu eta metodologia hau erabilita hizkuntza irakatsi dezaten. Bestalde, hitzarmena dugu Imbaburako Prefekturarekin, bere egitasmoetan kichwa ere egoteko, eta itzulpen- eta interpretazio-proiektuak ere aurrera doaz". Azkenik, Túquerresek esan digu ezagututako esperientzia guztiak oso motibagarriak direla aurrera jarraitzeko. "Irmotasunez eta borondatez jarraitu daiteke lanean".

ZAMUDIO
Loteria Nazionala
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
loterias.zamudio@gmail.com

ELORRIETA
INSTALACIONES ELÉCTRICAS
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
INSTALAZIOAK, MANTENTZE-LANAK,
KONPONKETAK...
MATERIAL ELEKTRIKOA SALGAI
info@elorrietainstalaciones.com
Uribe kalea 12 behea · Derio
639 582 547
944 540 386

squattc
SQUAT
TRAINING CENTER
ENTRENAMENTU PERTSONALA · LESIOAK · OPOSIZIOAK
ONLINEKO JARRAIPENA · KIROL ERRENDIMENDUA
Urkiola 4, Derio · squattrainingcenter.es · 686 917 409

Uda eta gazteak: osasun mentala zaintzeko aukera bat ere bada!

Uda urtero iristen da atsedenaren, askatasunaren eta deskonektatzearen promesarekin. Eskolak amaitzen dira, ordutegiak lasaitzen dira, egunak luzatzen dira... eta horrekin batera, familia-dinamika berriak sortzen dira, bereziki gure gazteen bizitzan. Nerabe askorentzat uda arnasa hartzeko garaia izan daiteke; beste batzuentzat, ordea, ziurgabetasuna, bakardadea edo ondoez emozionala ekar dezake. Horregatik, uda garaian ere osasun mentala zaindu behar da, eta familiek funtsezko zeregina dute horretan.

Nerabezaroa hazkunde pertsonala garatzeko garaia da, baita esploraziorako unea ere, eta, jakina, nortasuna eraikitzeko sasoia ere bada. Normala da zalantzak, ziurgabetasunak edo aldarte-aldaketak agertzea. Baina azken urteetan gazteen artean antsietate, depresio, estres eta isolamendu kasuek gora egiten dute. Pandemiak, sare sozialen erabilera intentsiboak, presio akademikoak eta emozioak kudeatzeko zailtasunek eragin handia izan dute horretan.

Ikasturtean zehar, errutinak oreka mantentzen lagun dezake. Baina udan, denbora libre gehiago eta egitura gutxiago izateak aurretik konpondu gabeko emozioak agerraraz ditzake edo ondoez sakonagoa adierazten duten jokabideak eragin: bat-bateko umore-aldaketak, urduritasuna, lo egiteko arazoak, isolamendua, pantailen erabilera neurrigabea edo motibazio faltan nabaria, besteak beste.

Eta, zer egin dezakegu familiok?

- **Presionatu gabe, entzun**. Zelan dauden galdetu, erantzun "egokirik" espero gabe. Batzuetan, hurbil egotea eta interes zintzoa erakustea da laguntzarik handiena.
- **Enpatiaz behatu**. Jokabidean, lo-ohituretan edo elikaduran aldaketak ondoez baten seinale izan daitezke. Ez da larritzeko momentua, baizik eta arreta jarri eta epaiketarik gabe babesa eskaintzekoa.
- **Osasun mentalaz hitz egin, tabu barik**. Tristura, antsietatea edo estresa bezalako hitzak normalizatzea garrantzitsua da. Laguntza eskatzea ez da ahultasunaren seinale, ausardiaren seinale baizik.
- **Talde ekintzak sustatu**. Ez dira beti plan ikusgarriak behar: paseo bat, kirola, musika, familiarekin denbora pasatzea, boluntariotza, lagun osasuntsuekin egotea... Eguneroko gauza txikiek ere ongizate emozionala indartzen dute.
- **Laguntza eskatu, behar denean**. Ez dugu beti jakiten zer egin, eta ondo dago horrela sentitzea. Herrian laguntza eskaintzen duten baliabideak daude, eta beharrezkoa bada bertara jo.

Gogoratu behar dugu helduak garela eredu. Guk estresa, atsedenaldia edo emozioak zelan kudeatzen ditugun erreferentziazkoa da gazteentzat, eta eragin handia du haiengan. Guk geure burua zaintzen dugunean eta gure emozioez hitz egiten dugunean, gazteei gauza bera egiten erakusten diegu.

Uda honetan, oporretatik harago, aukera paregabea dugu: gure gazteak ongizate emozionalean laguntzeko, ingurune seguru bat eskaintzeko eta bakarrik ez daudela gogorarazteko. Osasun mentala zaintzea ez da gutxi batzuen ardura, komunitate osoarena baizik.

Mihiluzeko finala jendez gainezka!

Beste urte batez, Mihiluze txapelketak izugarrizko arrakasta izan du Txorierriko 10-11 urteko umeen artean. Txapelketan parte hartu duten gazte kopuruari erreparatzea baino ez dago horretarako: Txorierriko herri ikastetxeetan, 5. eta 6. mailan 337 ume egon dira klasean ikasturte honetan eta horietatik 174 ume apuntatu dira lehiaketan: Deriotik 66, Larrabetzutik 30, Lezamatik 26, Sondikatik 36 eta Zamudiotik 16.

Hona hemen aurtengo saridunak:
1. postuan: Larrabetzuko Aiora Fernandez eta Laia Holgado
2. postuan: Zamudioko Enara Blas eta Aiala Torrontegi
3. postuan: Derioko Aimar Benito eta Luken Garrucho
4. postuan: Lezamako Inar Bilbao eta Asier Da Silva
Lau bikoteek familian disfrutatzeko bidaiak jaso dituzte. Zorionak guztioi!

Aurretiazko borondateen dokumentua egiteko tailerrak

2024-2025 ikasturtean zehar aurretiazko borondateen dokumentua egiteko tailerrak egin dira Derioko Kultur Birikan, Txorierriko mediku izandako Jesús Garcia Garrastazu eta Fernando Perez Vianaren eskutik. Azkenean 13 talde osatu ditugu, eta guztira 170 pertsonak baino gehiagok erabili dute zerbitzu hau. Azpimarratzekoa da, gainera, ekainean euskaraz egindako Euskal Herriko lehenengo taldea aurrera eraman dela.
Irailetik aurrera berriro lanean hasiko gara tailerrarekin eta, beraz, dagoeneko badago izena emateko aukera 747428849 telefonoan edo ekt@txorierri.eus helbidean (Esti).

TXORIERRIKO BERBAK

Astialdia eta erritmo aldaketa

Halango baten heldu da! Uda, eta udagaz batera eguraldi epelagoak, etxeko lagun askoren oporraldia... Hemen dogu bizitza patxada apur bategaz hartzeko sasoia.

Denbora gehiago atera geinke norberaren gustuko gauzei heltzeko, irakurteko, lagunakaz egoteko, ibilaldiak egiteko familiakoakaz, itsasbazterrera hurreratzeko...

Oporrak astiagaz lotzen doguz. Astia, zein berba ederra! Hiztegi batuak holan definitzen dau: "Lanik edo zereginik gabeko denbora, nahi den eran bete daitekeena".

Aisia edo *asti(a)*. Lehenengoak *-a* organikoa edo itsatsia dauka; bigarrenak, barriz, kendu edo jarri leitekean *-a* mugatzailea. Oinarri bereko *aisialdi(a)* eta *astialdi(a)* berbak be ezin ezagunagoak doguz. Dana dala, mendebaldeko euskaldunok errazago erabilten dogu *asti(a)* berbea. «Aisia» entzundakoan, askok *Asia* edo *haizia* aditzen dabe. *Asti(a)*, barriz, egunero darabilgu ahotan, bestelako esanguragaz bada be: "zeozertarako emoten, hartzen edo eukiten dan denporea".

Astialdia, probetxuzko zereginetarako erabili geinke. Izan be alferkeriak be, azkenerako nekatu egiten dau. Hamaika aukera daukaguz: osabagaz ortuan ibili, bazkaloste luzeez gozatu, aspaldi ikusi bako lagunakaz lotu...

Gainestimulazioaren aro honetan, guraso askok ezin dabe eroan umeak abroziduta ikustea. Baina, adi, asperdura horretatik euren benetako interesak piztu leitekez-eta: zeozer asmatuko dabe, libururen bat irakurteari ekingo deutsie...

Beharbada, aste batzuk baino zeozer gehiago beharko geunke abiadura handiko bizimodua «slow life» bihurtzeko, baina, zalantza barik, probetxu handia aterako deutsagu udako erritmo aldaketari.

BAKARNE ALTONAGA BEGOÑA
Ikertzailea unibertsitatean

“Duela zenbait mende bazuten generoa ulertzeko eredu malguago bat”

Garai bakoitzak bere kezkak ditu. Eta kezka horiek ezin dira alde batera utzi iraganari begiratzen diogunean. Generoa eta diferentzia sexuala eztabaida askoren protagonista dira egun. Eta bere bilakaera historikoa interesgarria da oraina ulertzeko. Horretan dihardute generoaren historialariek. Horretan dabil Bakarne Altonaga Begoña (1988, Sondika), ikertzaile eta irakasle EHUko Lan Harreman eta Gizarte Langintza Fakultatean.

2018an *Gorputzak iragatean: generoa eta diferentzia sexuala euskal gizartean Antzinako Erregimenaren krisian* tesia argitaratu zenuen. Zer kontatzen duzu bertan?

Master amaierako lanaren garapena izan zen tesia. Niri interesatzen zitzaidan Euskal Herriko zein Espainiako diskurtso erlijiosoetan, bereziki ilustratu ez zirenetan, zer motatako genero iruditeria eraikitzen zen. Zergatik? Bada, hurrengo susmo hau nuelako: gaur egungo ikuspegiarekin alderatuta, genero-iruditegi aurreilustratu edo antimoderno horretan bazegoen gizonen eta emakumeen arteko harremanak eta diferentzia sexuala ulertzeko oso forma ezberdin bat. Horrek eraman ninduen XVIII. eta XIX. mendeetako euskal kanon literarioaren zenbait egile irakurtzera –elizgizonak denak noski– , bai euskaraz, bai gaztelaniaz idatzi zutenak. Zer ikusi nuen hor? Bada, genero-iruditeri aurremodernoek hein handi batean oso ikuspegi sozial hertsia, hierarkiakoa eta misoginoa konbinatzen dutela, baina, aldi berean, badutela diferentzia sexuala ulertzeko eredu malguago bat. Emakume gorputza eta gizon gorputza eta haien arteko trantsizioak zer ziren ez zegoen diskurtso zientifikoaren eta biologiaren bidez hain finkatuta. XIX. mendeko iraultza liberalean gertatzen da aldaketa hori.

Zein desberdintasun sumatu duzu generoa eta diferentzia sexuala ulertzeko lehengo moduaren eta gaur egungo eraren artean?
Oso gizarte hierarkikoa zen, ez zen aberastasunean oinarritutako klase gizarte bat. Baina garai hartan gorputzak ulertzeko diskurtsoak eta gorputzak sentitzeko erak beranduago garatu zen ikuspegi zientifizista, biologista eta esentzialistatik desberdintzen zen. Ikuspegi erlijioso eta mitikoek zuten garrantzia handiagoa gorputza ulertzeko unean, eta horrek ekartzen zuen generoak pertsonen posizio sozialak baino garrantzia gutxiago zuela. Horrek ekar zezakeen generoaren mobilitate handiago bat. Horrek esan nahi du generoaren ikuspuntutik gizarte irekiagoak zirela? Ez. Genero kategorizazioa ez zegoen hain lotuta gorputzasun jakinetara eta gorputzaren iruditeri zientifizistetara eta materialistetara. Horregatik izan zitekeen mobilitate handiago bat.

Genero trantsizioak izaten ziren?
Ezin da esan gizarte tolerantea zenik, baina XX. mende erdialdeko gizartearekin alderatuta, arazo gutxiago zituen, emakume batek gizon baten ardura eta estatus soziala hartu ahal zuela, baita gizontasunaren trazak ere, onartzeko. Hor badaude adibide batzuk, nik ikertu ez ditudanak, nire ikerketa garaien arteko trantsizioa izan delako, baina adibide paradigmatikoena Catalina de Erausorena da. Bere ausardia militarrari esker gizon bezala onartu izan zuten. Hori bakarrik da posible testuinguru batean, zeinetan beste mota bateko bertuteek generoak duen pisua gainditzeko gaitasuna daukaten. Bere jardun militarrari esker onartu zitzaion bere gizon estatusa.

> **“Genero kategorizazioa ez zegoen hain lotuta gorputzasun jakinetara eta gorputzaren iruditeri zientifizistetara eta materialistetara”**

Gaur eguneko genero iruditeria ilustraziotik dator?
Zorionez, duela hamarkada batzuetatik hona, feminismoari esker, ikuspegi hori deseraikiz doa. Baina XIX. mendetik aurrera eta XX. mendean nagusitu zen binarismo esentzialistak ilustrazioan eta liberalismoak garatu zuen genero iruditerian du jatorria. Genero harremanak gizartea antolatzeko botere harremana diren heinean, XIX. mendetik aurrera ikuspegi hori finkatzen da, diferentzia sexuala antolatzea politikoki interesgarria delako. Ikuspegi zientifikoan oinarritzen dira horretarako, begirada berri bat zeinek desberdintasunak ikusten hasten da gorputzetan. Diferentziak beti ikusi izan dira, baina ikusteko modua aldatzen da. Hori ez da neutroa, nahi politiko bati erantzuten dio gizartea ordenatzeko eta era jakin baten antolatzeko. Emakumeak izango dira beharizan batzuk bermatuko dituztenak, gizonezkoek beste batzuk bermatuko dituzte…

2017an, Manuel Larramendi bekari esker *Guziak dantzari: dantzari buruzko eztabaidak eta generoa euskal probintzietan (XVIII-XIX)* lana argitaratu zenuen.
Tesirako Euskal Herriko elizgizonen eta moralisten testuak aztertzen nenbilela, konturatu nintzen aurreko mendeetan dantza gai polemikoa izan zela. Polemikaren muina beti zen gorputzen arteko gertutasuna: dantza arriskutsua zen, emakumeen eta gizonen gorputzak, baita gizonen eta gizonen gorputzak ere, hurbil egoteko aukera ekartzen zuelako. Garaiko elizgizon batentzat gertutasun hori begirada soil bat ere izan zitekeen. Horretan jarri nuen interesa. Ez nuen ikertu euskal dantzak, tradizioa, koreografia… nola sortu ziren; nire helburua zen erromerietako dantzak sozialki nola ikusten ziren aztertzea. Eta konturatu nintzen elizgizon guztiek ez zutela ikuspegi berdina: Larramendik, adibidez, gipuzkoarren bikaintasun morala defendatzen zuen dantzen bitartez; Añi-

SUKALDEAK
insukaldeak.com
BILBAO
T. 94 402 82 54
Lehendakari Aguirre 175-177.
48015 Bilbao
DERIO
T. 94 656 85 69
Txorierriko etorbidea 9. Ed. Arteaga.
48160 Derio

barrok, ordea, bakarrik ikusten zuen bekaturako arriskua.

Filosofian lizentziatua zara, eta historia garaikidearen irakaslea unibertsitatean. Zure ikerketen esparrua generoaren historia dela diozu.
Nire ikerketa generoaren eta emakumeen historian kokatzen dut, bai. Gure iturri metodologikoak eta gure iturri teorikoak, halabeharrez, diziplinartekotasunean oinarrituta daude. Antropologiatik, filosofiatik, soziologiatik edota historiatik datozen ikerketetatik eta teorizazioetatik edaten dugu. Generoa eta emakumeen historiaren ikertzaileontzat, Judith Butler edo Donna J. Haraway bezalako filosofia teorilarien ekarpenak oso garrantzitsuak dira, baina baita Joan Scott bezalako historialarien lana ere. Hala ere, guk sortzen dugun diskurtsoa eta ezagutza historikoa da, historiari egiten diogu ekarpena.

Zein da iragana eta orainaren arteko erlazioa? Zein begirekin begiratzen diogu iraganari?
Nik pentsatzen dut hor badagoela klabe bat. Iragana ulertzeko asmoz dugun begiradan dauden kezkak beti dira orainaldikoak, neurri batean. Horrek ez du esan nahi ni iraganera begiratzen dudanean oraina justifikatzen duen zerbaiten bila ibili behar dudanik, baina ezin ditugu gaur egungo kexak alde batera utzi, nahiz eta anakronismoak ekidin nahi. Historiak laguntzen digu generoaren desnaturalizazioa egiten: gorputz, diskurtso, sentipen, kosmobisio eta iruditerien desnaturalizazioa egiteko oso lagungarria da iraganari begiratzea. Bertan ikus baitezakegu gorputzen iruditeriak eta sentipenak eta gizon eta emakumeen arteko harremanak zeharo ezberdinak izan direla historian zehar. Horrek laguntzen digu ulertzeko gure gaur egungo iruditeriak iraganekoak bezain eraikiak direla, besterik ez. Hori posible izan da 80eko hamarkadatik aurrera teorizazio feministak egin duen generoaren deserainkutzari esker. Begirada berri horrek lagundu digu iragana beste begiekin kontatzen.

> **“Dantza arriskutsua zen, emakumeen eta gizonen gorputzak, baita gizonen eta gizonen gorputzak ere, hurbil egoteko aukera ekartzen zuelako”**

Azken aldian gertatzen ari den feminismoaren aurkako oldarraldiaren jomuga ere badira zurea moduko ikerketak. Baldintzatuta sentitzen duzu zure burua?
Batetik, oso penagarria izan da mugimendu feministaren baitan, mugimendu sozial giza ulertuta, izan den banaketa. Ikuspegi esentzialista eta transfobo

baten alde egin dutenen eta ikuspegi trans-feministago baten aldekoen artean izan den apurketa. Ikerketari dagokionez, nik ez dut, momentuz, presiorik sentitu. Baina jakin badakigu AEBko akademian presio horiek gero eta nabariagoak eta arriskutsuagoak direla. Ez du bakarrik autozentsura eragiten; ikerketen finantziazioan ere eragina du: erakunde publikoek erabaki dezakete "genero", "emakume" edo "maskulinitate" berba daraman ikerketa bat ez finantzatzea. Horrek suposatzen du ikaragarrizko atzerapauso bat ezagutzaren sorkuntzan. Esango nuke momentuz hemen ez dugula hori bizi, baina ikusten duguna oso kezkagarria da.

"Iragana ulertzeko asmoz dugun begiradan dauden kezkak beti dira orainaldikoak"

Ikertzailearen bizitza unibertsitatean

Sondikoztarrak kontatu digunez, oso karrera profesional luzea da ikertzailearena. "Karrera bukatu eta gero, masterra egiten duzu. Masterrak emango dizu abagunea ikerketa galdera bat sortzeko, eta hori bihurtuko duzu gero zure tesi-gai. Tesia egiten emango dituzu, seguru asko, lau urte. Finantziazioa lortu dezakezu urte horietarako, badauzkagu aukera dezente. Tesia amaitzen duzunean eta doktore zarenean duzun aukera da ikertzen jarraitzea, hau da, beka postdoktorala lortzea". Unibertsitatean irakasle ordezkapenak egiteko aukera ere agertu ahal da. "Horrek pixkanaka akreditazio prozesuak pasatzeko aukera emango dizu. Behin lortuta, aukera duzu plaza lortzeko aurkezteko". Altonagak 2018an bukatu zuen tesia eta 2023an lortu zuen doktore-laguntzaile plaza. "Doktore-laguntzaile izan behar duzu lau urtez. Orduan hasiko zara zure lanpostua egonkortzen. Egoera oso ezberdinak bizi ahal dituzu bidean: badago jendea doktorego tesia diru-laguntzarik gabe egiten duena, badago jendea ordezkapenak lanaldi murriztuan egin dituena (horrek eragin zituen EHUn mobilizazio garrantzitsuak duela urte batzuk). Baina bereziki ziurgabetasuna da kezkagarriena. Urte askotan ibili behar duzu lanean jakin gabe finkatzea lortuko duzun". Horri guztiari lankideen arteko lehia gehitzen zaio. "Gure ikerketa produktibitatearen arabera ebaluatzen da, gero eta gehiago argitaratu, hobeto. Produktibo izatearen behar horrek eragiten dio ikertzaileen arteko lehiari; plazak lortzeko zailtasunetan... behartuta zaude, une oro, idazten egotera".



ANER MENTXAKA EDUARDO MARTIN

BERO-UHARTEAK TXORIERRIN

Sargoritik ihes egiteko mapa

Uda honetan, segur asko, berriz biziko ditugu, tenperatura altuak Txorierrin. 40 graduen bueltako egunak gero eta sarriagoak dira gure bailaran. Baina sargoriak eskualde osoari berdin eragiten dio? Edo beroa errazago pilatzen da gune zehatz batzuetan? Eduardo Martin Azaola lezamarrak sateliteen neurketak aztertu ditu eta badu erantzuna.

Eduardo ingeniari agronomoa da eta azken aldian GIS datuekin (Informazio geografikoko sistemak, ingelesez) egiten du lan sortu duen Gisarte enpresan. Gobernuz kanpoko erakundeekin sarritan ibilitakoa da eta Mozanbikera egin zuen bidaia batean konturatu zen sateliteen informazioa zeinen baliagarria izan zitekeen nekazaritza proiektuak planifikatzeko. Ez hori bakarrik, hiriguneetan eguzkiaren intzidentzia ere kalkulatu daiteke: “AEBtako eta Europako espazio agentzien sateliteek hilean birritan egiten dituzte Txorierriko lurrazalaren neurketak. Datuak publikoak dira eta sarean daude eskuragarri. Neurketa hauek oso zehatzak dira gainera, 30 metroko erresoluzioa dute”.

2024ko uztailaren 23ko neurketa baliatu du Eduardok bero-uharteen mapa sortzeko. Sondikatik Larrabetzurainoko eremuan, kolore beroz (horiz, laranjaz eta gorriz) ikus daiteke udako egun hartan sateliteak tenperatura altuenak non neurtu zituen. Bero-uharte nagusiak bailararen erdialdean kokatuta daude, gizakiaren esku-hartzea handiagoa izan



den eremuan. Mendebaldetik ekialdera, lerroan, industria-gune nagusiak identifikatu ahal ditugu. Horien artean dago Zamudiok eta Deriok konpartitzen duten Ugaldeguren I industrialdea, non eskualdeko tenperatura altuenak neurtu zituen sateliteak. Aireportuaren pista ere erraz antzematen da mapan. Izan ere, asfaltoa eta metalezko teilatuak dira beroa handitzen duten material nagusiak. Hala ere, herriguneen artean ez da ezberdintasun handirik sumatzen. Mendebaldekoetan tenperatura pixka bat altuagoa bada ere, aldea txikia da. Mendialdeak kolore urdinez ageri dira ordea, bertako baso eta zuhaitz landaketek tenperaturaren hoztea errazten baitute. Tontorretan ditugu tenperatura baxuenak.

Satelite bidezko neurketa hauek baliatzen ditu Eduardok populazio datuekin gurutzatzeko. Era honetan informazio konplexuagoa lortu daiteke: beroak ez dio biztanleria guztiari berdin eragiten. 65 urtetik gorakoak talde zaurgarria dira bero-boladetan, eta zein auzoetan bizi diren jakitea interesgarria da neurriak hartzeko orduan.

Uribe On tour 2025,
Uribeko kostaldeko eta barnealdeko onena

Uda honetan ere, Uribe On tour programa nabarmentzen da Bizkaiko eskualde honetako erakargarritasun turistikoei balioa ematen dien jarduera-eskaintza handiagatik, zeinak kostaldeko potentziala eta barnealdeko xarma uztartzen baititu. Alde horretatik, antolatutako esperientzien aniztasunak eta kalitateak bisitariei bermatzen diete neurrirako eta gustu guztientzako planak egiteko aukera.

Seigarren edizioan, programaren lau ardatz nagusiak dira Herriak, Ondarea, Flysch Bizkaia eta Txakolina, eta horien baitan daude aurten ere Uribe kalitateko turismo-helmuga adimendun moduan sendotzen duten ekintza guztiak. Zentzu horretan, ekimenak garapen jasangarriaren helburuei erantzuten jarraitzen du, eta ekoizlearen eta bisitarien arteko harreman zuzena errazten du. Horren adibide dira txakolin-azoka eta txakolin-upeltegietara joateko gonbidapena: neurrira egindako eskaintza dela eta, bisita gidatuek, dastatzeek eta uztartzeek lehen mailako esperientzia enogastronomikoak bizitzeko aukera emango dute.

Bakioko Txakolin Museoa-Txakolinguneak “Uribeko koloreak” jarduera eskaintzen digu, txakolinaren aniztasuna ezagutzeko, dastatze eta pintxo eta guzti. Gainera, Uribe On tour 2025 edizioan ere egitasmoaren ekintza nagusia topatuko dugu: Bizkaiko Flyscha. Uribe eskualdean eta Getxoko udalerrian ondare geologikoak duen balio turistiko handiak erakusten du oraindik ere ingurune honetan eskaintzen diren esperientziak gehien eskatzen direnak direla. Paisaia ikusgarri honetako jarduera nagusiak izango dira geologo adituek gidatutako bisitak eta abentura-jarduerak, adibidez, 4x4 ibilbideak.

Beste aldetik, kulturari, ondareari eta familiari lotutako planek berriz ere leku nabarmena izango dute Uribe On tour 2025eko programazioan, eta Berango, Leioa, Mungia eta Plentzia bisitatu ahalko dira. Berangoko, Burdin Hesiaren Oroimenezko Museoan, esaterako, 36ko gerran Bilbo tropa frankistengandik babestea helburu zuen defentsa-eraikuntzaren historia interesgarria ezagutzeko aukera dago. Era berean, herri gehiago izango dira aurtengo edizioaren protagonista, programa ezberdinak dituztela: Gorlizko DASTATUARTE Food & Art jaialdia, Bakioko ibilbideak edo Zamudion eta Mungian dauden puntako bi artisau-garagardo fabrika bisitatzeko aukera.

Uribe On tourreko bisita eta jarduera guztiak uztailean eta abuztuan egingo dira, eta www.uribe.eu webgunean kontsultatu daiteke 2025eko programa osoa, eta erreserbak egin. Edizio berri honen bidez, udako hilabeteetan Uribeko eskualdea sustatzeko hitzordu garrantzitsuenetako bat finkatu da, interesa eta parte-hartzea urtez urte handituz doazela.

Uribe On tour 2025

Euskadi / Bizkaia / Uribe

www.uribe.eu

UZTAILA | ABUZTUA

Uribe On Tour itzuli da uda honetan ere, eskualdeko onena konbinatzen duten jarduerez betetako programa batekin: gastronomia, txakolina, artisau-garagardoa, bisita gidatuak, abentura, kultura-ondarea, Bizkaiko Flyscharen inguruko ibilbideak eta tokiko zapore eta tradizio guztiez betetako azokak.

Zer gehiago eska dakioke?

Goza ezazu eta esperientzia onez betetako bilduma bat eraman ezazu etxera.

Sartu uribe.eu webgunean eta eman izena gogokoen dituzun jardueretan.

Uribe

JATA-ONDO LANDA GARAPENA DESARROLLO RURAL

BILBAO BIZKAIA be basque

Bizkaia foru aldundia diputación foral

EUSKADI BASQUE COUNTRY

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

T ANER MENTXAKA UCLA FILM & TELEVISION ARCHIVE

1936KO GERRAKO IRUDI BERRIAK

Goikoelexaldeko gudariak

Hegazkin alemaniarrek eta italiarrek Gernika bonbardatu eta egun gutxira heldu zen Robert Petiot kamarografoa Bizkaira. Altxamendu militarrak Euskal Herri gehiena zuen menpean; Bilbo eta inguruak bakarrik mantentzen ziren Euzko Gudarostearen kontrolpean. Hurrengo asteetan Gerra Zibileko hainbat gertaera filmatu zituen Petiotek Bizkaian.

Berriki ezagutu diren irudien artean, Larrabetzuko Goikoelexalde auzoan grabatutakoak daude. Maiatzaren 13an hegazkin alemaniarrek Bizkargiko posizioa bonbardatu zuten enegarren aldiz, eta gudariek Heinkel He 51 ehiza-hegazkin bat botatzea lortu zuten. Pilotua atxilo eraman zuten Bilbora eta hegazkinaren arrastoak Goikoelexaldera jaitsi zituzten. Irudietan hainbat gudari ageri dira arrastoak ikertzen eta kamioi batera igotzen. Horien atzean auzoko eskola eta harrizko gurutzea ikus daitezke.

Robert Petiot Eusko Jaurlaritzarako eta AEBtako Hearst Metrotone News albiste agentziarako zebilen lanean. Euskal gobernuak gatazkaren berri eman nahi zuen atzerrian, baina garestiegia suertatzen zitzaion berri emaile bat kontratatzea. Horregatik akordioa egin zuten albiste agentzia amerikarrarekin, kamarografoaren kostuak elkarbanatzeko.

Hearst Metrotone garaiko albiste agentzia handienetakoa zen. William Randolph Hearst handikia zen jabea, Orson Wells zinemagileak *Citizen Kane* filmean maisuki erretratatu zuena. Mundu osoko irudiekin sortutako albistegiak Metro-Goldwyn Mayerren zinema are-

toetan proiektatzen zituen Hearstek, pelikulak hasi aurretik. Milioika estatubatuarrek ikusten zituzten telebistaren aitzindari izan ziren albistegi horiek. Petioten irudiak ere erabili ziren, ahots narratzaile batekin ikus-entzunezkoak sortzeko. Baina Goikoelexaldeko irudiak ez omen ziren zinemetan ikusi; baztertu egin ziren eta ilunpetan egon dira, orain gutxira arte.

Californiako Unibertsitatea eta The Packard Humanities Institute irudiak berreskuratzen ibili dira azken urteetan. Espainiako Gerra Zibileko 288 film digitalizatu dituzte orain arte, denak 1936 eta 1939 urteen artean errodatutakoak. www.newsreels.net webgunean daude ikusgai guztiak, eta aikorrek aldizkarian argitaratzeko baimena lortu du. Hala ere, hauek ez dira Txorierriko irudi bakarrak, beste herri batzuk ere ageri dira grabazioetan eta hurrengo aldizkarian izango ditugu ikusgai.

Bideoa ikusgai duzu gure webgunean.

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SARRIKOLA OGITEGIA
Euskal pastela
Basermko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta
Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

Centro Dental
Txorierri
Rocío Astorkia Bordegaray
Col. nº 48000759
Ainhoa Rodríguez Mella
Col. nº 48001337
Igone Nieto Hernández
Col. nº 48001462
Mitxine 7, behea - 48150 Sondika
(geltoki aurrean)
Tfno.:944 711 639 - Larrialdiak: 670 985 885
www.cdtxorierri.es
ORTODONCIA21

JOANES CAMARA
Talde- eta komunitate-jarduerak kudeatzeko teknikaria

EMAUS

Derioko azokan izan ginen

Badira bost urte Derioko komunitatearen parte garela, eta Emáus Gizarte Fundazioa hasiera-hasieratik azaldu da mota askotariko ekimenetan parte hartzeko prest, herriko eragile komunitarioen arteko sareak sendotzeko asmoz. Horrela, joan den urtean bezala, herriko jaietan modu aktiboan parte hartzeko gonbidapena egin digu aurten Derioko jai-batzordeak. Zehatz-mehatz, maiatzaren 10ean egin zen herriko elkarteen eta erakundeen azoka herrikoian egoteko gonbidapena egin ziguten, herritarrengana modu zuzenagoan heltzeko eta, aldi berean, ingurua partekatzen dugun pertsonekin topaketa egiteko aukera izateko.

Bitartean Programarentzat zaila da halako proposamen bati uko egitea, eta, horregatik, berehala hasi ginen lanean, erakusketa- edo informazio-stand bat prestatzeko, guri buruz gehiago jakin nahi zuen edonor hurbildu ahal izateko. Stand horretan ipini genituen gure lana zein den eta non gauden azaltzen duten panfletoak, gure ekimen nagusiak jasotzen dituzten aldizkariak, informazio korporatiboa eta gure egunerokotasunaren une garrantzitsuak batzen dituen argazki-bilduma.

Standa muntatuta, izugarri poztu gintuen inguruan herritarrak, elkarteak, udalerriko eragileak, artisauak... ikusteak, eta, gainera, berretsi genuen hurrengo ideia hau: garrantzi-garrantzitsua da lan egiten dugun kolektiboa –hau da, gizartetik kanpo dauden pertsonak– eguneroko bizitza duten inguruan nahastea. Gainera, aurpegi batzuk aurretik ezagutzen genituen, haiekin batera hainbat proiektutan ibiliak garelako, eta hori ere oso ederra izan zen. Horien artean egon ziren Marikobaso Espazioa, Gure Señeak elkartea, Tximintx hizkuntza komunitatea eta Haszten elkartea.

Horrela, aurreko lerroetan esandakoa azpimarratzeaz gainera, PAI Bitartean programaren ordezkariok leku hau baliatu nahi dugu jai-batzordeari gonbidapenagatik eskerrak emateko. Era berean, adierazi nahi dugu Derioko hainbat aliaturekin atsegin handiz partekatzen ditugula gune komunak. Izan ere, modu honetan komunitatearen parte direla sentiarazten diegu gizartetik kanpo dauden pertsonei.

NEURODOINUAK

FREEPIK

IRATI GAÑAN RODRIGUEZ
Musikaria eta ikaslea



Burmuina *doinutzen*

Zer datorkizu burura burmuinaz pentsatzen duzunean? Agian, masa gris bat, zimurtsua, ulertzen gaitza dena. Eta esaten badizut mataza horren barruan, hesiak zeharkatzen dituen, oroitzapenak berriro ekartzen dituen edo mugimendua sortzeko gai den zerbait badagoela? Ez da pilula bat, musika da.

Neurozientziaren arloan egindako gero eta ikerketa gehiagok berresten dute askok betidanik antzeman dutena: musika ez da soilik artea edo entretenimendua, gure burmuinean egiazko eragina duen tresna boteretsua ere bada. Artikulu hau, hain zuzen ere, horretan datza: musika botika eraginkor bihur daiteke, esaterako, alzheimerrak jotako pertsonentzat.

Eragin hori ulertzeko, komeni da jakitea, azaletik bada ere, gure garunak nola funtzionatzen duen. Hainbat atal espezializatuk osatzen dute: batzuek hizkuntza kontrolatzen dute, beste batzuek memoria, beste batzuek mugimendua... Harrigarriena da musikak atal horietako asko aldi berean aktibatzen dituela. Adibidez, neuroirudiei buruzko ikerketek erakutsi dute musika entzuteak sistema linbikoaren aldeei eragiten diela, hau da, gure emozioei (Koelsch, 2009)[1]. Doinu jakin bat gustatzen zaigunean, sari dopaminergikoaren zirkuitua suspertzen da; zirkuitu hori atseginez jaten dugunean edo maitemintzen garenean ere pizten da.

Zer gertatzen da, baina, kaltea hartutako garunetan, kasurako, alzheimerrak edo beste gaixotasun degeneratibo batek konexio horiek itzali dituenean? Musikak erantzunak eragiten jarraitzen du narriadura kognitibo larria duten pertsona askorengan, ia-ia estimulu guztiak desagertu direnean. Kasu batzuetan, senideak dagoeneko ezagutzen ez dituzten pertsonak hunkitu egiten dira (eta kantatu) gaztaroko abesti bat entzutean. Zergatik? Hori gertatzen da musika garunaren atal bakar batean gordetzen ez delako, hainbatetan baizik, eta atal horiek funtzionalak izaten irauten dute dementziaren etapa aurreratuetan ere, oroitzapenak eta emozioak gogora ekarriz.

Gainera, musikak oroitzapen garrantzitsu eta biziak gogora ekartzeko ahalmena ez da erantzun hutsala. Praktika klinikoan, egiaztatu da familia-giroko musika instrumentala entzunez gero, gaixoek buruan erabil ditzaketela bestela eskuraezinak liratekeen oroipen autobiografikoak (Cuddy et al., 2015)2. Adibidez, Turkuko Unibertsitate Ospitaleak (Finlandia) gauzatutako ikerketa batek frogatu zuen iktus baten ondotik garuneko kaltea hartu zuten pazienteei ahots-musika egunero entzuteak hizkuntzaren neurona-sareen berrantolaketa hobetzen laguntzen diela. Hori bereziki baliagarria da afasia edo garuneko lesioen ondorioz beste hizkuntza-nahasmendu batzuk pairatzen dituzten pertsonentzat.

Datu horiek guztiak aztertuta, konturatuko gara musikak uste baino eragin handiagoa izan dezakeela gure bizitzan eta jokabideetan. Jakina denez, oraindik ere asko dago ikertzeko. Dakigunak, ordea, zantzuren bat ematen digu: musika giza burmuinaren gaitasun sakonen atea zabaltzeko giltza da.

Artearen garrantzia nahikoa ahaztuta daukan gure munduan, komeni da gogoraraztea musika ere sendagarria dela. Ondo aukeratutako abesti bat mila hitz baino eraginkorragoa izan daitekeela. Eta, gainerako irtenbide guztiek huts egiten dutenean, agian, burmuinaren makineria berriro martxan jartzeko gauza den melodia bat erabil dezakegula.

[1] Koelsch, S. (2009). A Neuroscientific Perspective on Music Therapy. Annals of the New York Academy of Sciences, 1169(1), 374–384. https://doi.org/10.1111/j.1749-6632.2009.04592.x

[2] Cuddy, L. L., Sikka, R., Vanstone, A. (2015). Preservation of musical memory and engagement in healthy aging and Alzheimer's disease. Annals of the New York Academy of Sciences, 1337(1), 223–231. https://doi.org/10.1111/nyas.12617

1 Memoria gurutzea

2 Barroeta dorretxea

3 Arretxinagako San Migel ermita

IÑAKI OLABARRIETA
JOSE ANGEL MENTXAKA

MENDITIK PATXADAZ

Memoria historikoa Markinara bidean

Ibilbide honetan, Bizkaiak Gipuzkoa mugatzen duen lekuan hasi, Urkaregiko mendatean, eta Markinaraino helduko gara. Jose Sagarna, Larruskaineko apaiza, fusilatu zuten lekuan ipinitako oroigarritik pasatuko gara, eta Donejakue bideari jarraituz Markinara helduko gara, 11 kilometro inguruko ibilbide erraza egin ostean. Bertan hainbat gauza interesgarri ikusiko ditugu.

Urkaregiko mendateko aparkalekuan hasi dugu ibilaldia, Gipuzkoa eta Bizkaia arteko muga da. Iparralderantz egin dugu hormigoizko bidetik. Bide nagusiari jarraitu diogu, zeren baserrietara doazen hainbat desbideraketa daude. Bi kilometro eta erdi egin dugunean, eskuinetik Donejakue bidea elkartu zaigu eta ez dugu utziko Markinara heldu arte. Lau kilometrora, Amulategi baserrira heldu baino apur bat lehenago, ezkerreko landan harrizko gurutze bat dago. Bertan, 24 urte zituela, Jose Sagarna Uriarte fusilatu zuten frankistek 1936ko urriaren 20an; zeanuritarra zen, eta une hartan, Larruskaineko apaiza. Urteetan zurezko makila bat egon da leku horretantxe jarrita, harik eta 1988. urtean Markina-Xemeingo Udalak orain ikusi daitekeen gurutzea jarri zuen arte.

Aurrera egin dugu. Laster Larruskainera doan galtzada ikusi dugu. Guk ezkerretara egin, eta hormigoia amaituta harrizko pistatik jarraitu dugu. Aurreragoko panel batek fusilamenduaren eta lekuan izandako borroken berri ematen du. Hamaiketakoa egiteko mahai eder batera helduta berriro hasi da asfaltoa. Hemendik Markinara jaisteko hainbat bide daude. “Ofizialenari” jarraitu diogu, aldapa gutxien duenari. Horretarako, une batean, Etxebarriako Memoria Ibilbidearen panelera heldu eta hura irakurri ondoren, eskuinetara egin dugu, zuzenago doazen beste bideak atzera utzita, eta pista batetik apurka-apurka jaitsi gara bailararantz.

Barroeta dorretxe elegantera heldu gara, eta ondoan duen ermitara. Erdi jauzita daude, eta euren egoerak pena ematen du. Sartu-irten laburra egin ostean jarraitu, eta Arretxinagako San Migel ermitara heldu gara. Euskal Herrian eliza/ermita bereziak badaude, eta hauxe da haietako bat. Hexagonala da. Barrura sartu gara eta zer aurkitu dugu? Harritzar handiak. Lasai! Harriak bertan zeuden, elizako hormez inguratu zituztenean. Errekari jarraituz, handik nahiko hurbil, Xemeingo eliza dotorera heldu gara. Merezi du geldialdi bat. Lehenago kanposantu bitxira sartu gara, estelak dira nagusi. Elizako horma batean eguzki-erlojua dago, benetako ordua ematen duena. Barrura sartu gara, eta duen tamaina handiak harritu gaitu. Historia apur bat egitearren: eliza X. mendean eraikitzen hasi zen eta XVI.-XVII. mendeetan amaitu. Xemein herriko eliza zen eta Xemein eta Markina, azken hau hiribildua zena, batu zirenean, hasi ziren arazoak. Norena zen eliza? Nork osatu patronatua? Zubia pasatu dugu eta Markinako plazara heldu gara. Aurretik Markina-Xemeingo Memoria Ibilbidearen panela irakurri dugu.

4 Xemeingo hilerria

5 Xemeingo eguzki-erlojua

Ibilbidea

Distantzia: **10,7 km**
Desnibel positiboa: **128 m**

Eskuratu hemen ibilbidearen *track*-a



PEXELS / BRETT SAYLES

@TXIRIBITA_MUNDI

HERBARIOA

Mihilua

Foeniculum vulgare. Unbeliferoen familiako (*Apiaceae*) landare aromatikoa da; anis berdea, aingeru-belarra, kuminoa eta basa-azenarioa ere familia horretakoak dira. Jatorriz Europako hegoaldekoa da, batez ere Mediterraneoko arrokoa. Gaur egun, mundu osoko leku epeletan topa daiteke, eta itsasotik gertuko lur karedunetan hazten da, ibaiertzetan, lakuetan eta abarretan. Bi barietate daude: mihilu gozoa eta mihilu mingotsa.

NOIZ BATU

Haziak sikatu nahi baditugu, udazkenean jaso behar ditugu, goizean eta fruituak lorean heldu ahala. Lorea mozten da eta bere horretan lehortzen uzten da. Egun batzuk igarota, oihal baten gainean astintzen da eta haziak biltzen dira. Nolanahi ere, baliteke lehortzen jarraitu behar izatea. Ondoren, ontziratu eta ondo gordetzen dira.

PROPIETATE DIETETIKOAK

Aberatsa da C, A, B3 eta B5 bitaminatan, azido folikoan (B9), zuntzean eta mineraletan, esaterako, potasioan.

SUKALDEAN

Entsalada, zopa, krema eta arrain-errezetetan erabiltzeko moduko hostoak ditu: bikainak dira aipatutakoei gehitzeko. Erraboil gozo-gozoa du, eta txikitu ahal dugu, eta tipulin gozoa izango balitz bezala entsaladetan erabili. Era berean, labean egin ahal dugu, kreman edo purean. Horri dagokionez, aipatu beharra dago, bere erraboil jangarria dela eta, Florentziako mihilua edo mihilu gozoa dela gehien landatzen dena (Azoricum barietatekoa). Bere erraboila zuria eta kurruskaria da eta oso gozo dago. Loreak postreak eta edariak lurrintzeko erabiltzen dira.

PROPIETATE SENDAGARRIAK

Fitoterapian eta aromaterapian batez ere haziak erabiltzen dira, olio esentzial kantitate handia dutelako. Gehienbat tisanak prestatzeko erabiltzen dira. Olio esentzial kantitate handia duelako hain zuzen ere, mihilua espektoratzailea eta antiseptikoa da eta tisanetan edo xarabeetan erabiltzen da, eztula, mukiak, hotzeria edo gripea kentzeko. Mihiluaren propietaterik handienetako bat da eragin karminatiboa duela, eta horregatik lagungarria da haizeak kanporatzeko. Gainera, digestioari laguntzen dioten propietateak eta espasmoak arintzen dituzten propietateak ditu, bai digestio-mailan, bai maila genitourinarioan zein arnasketa-mailan. Ezin hobea da digestioa errazteko, haizeak gutxiagotzeko eta heste suminkorraren sindromea arintzeko.

ERABILERA SENDAGARRIAK

- Digestio astunak, sabel puztua eta haizeak.
- Digestio-traktuaren nahasmendu espastikoak. Digestio-traktua lasaitzen du.
- Heste suminkorraren sindromea. Egiaztatu denez, kurkuminarekin batera (kurkumaren printzipio aktiboa) erabiliz gero, sindrome horrek sortzen dituen minak arintzen dira.
- Hotzeria, eztula eta eztul kronikoa.
- Hileko mingarria (dismenorrea). Umetokia erlaxatzen du eta bere espasmoak arintzen ditu.
- Konjuntibitisa eta begietako narritadurak. Kamamila erabilita egiten den moduan, begiak mihiluarekin garbi daitezke.

INFUSIOA

Hobe da hazia birrintzea edo ehotzea eta infusioa egitea, horrela olio esentzialak hobeto kontserbatzen direlako. Egunean, 5-7 g fruitu hartu behar da infusioan, eta gehienez hiru tisana. Fruituak txikitu behar dira, infusioa egin, eta 15 minutuan

jalkitzen utzi. Bestetik, 4 urtetik 12 urtera bitarteko umeek kantitate txikiago (3-5 g) hartu behar dute egunean, eta gehienez jota aste batez. Digestio-arazo arinetan bakarrik erabiltzea gomendatzen da.

Fruituei hipersentikortasuna badiegu, hobe da ez hartzea. Apiazeoen edo umbeliferoen familiari alergia edo sentikortasuna dioten pertsonek ere ez dute hartu behar. Familia horietakoak dira, adibidez, anis berdea, ezamihilua eta aingeru-belarra. Mihiluz egindako prestakinak, batez ere olio esentziala badute, ez dira bi aste baino gehiago jarraian hartu behar. Denbora-tarte hori pasatuta, ondoezak jarraitzen badu, medikuari esan behar diogu.

ARRETA NEURRIAK

Ez da gomendagarria haurdun daudenek edo titia ematen dabiltzanek infusioa edatea, eta edatekotan, kantitate txikietan eta noizean behin izan behar da. Era berean, haurdun daudenek ezin dute inondik ere hauek hartu: olio esentziala, mihiluaren olio esentziala erabilita egindako prestakinak, tinturak eta estraktu alkoholdunak.

Landareak batzeko aholkuak

Orokorrean: hartu ondo ezagutzen duzuna; hartu neurriz eta soilik lekuan asko badaude; ez eraman dena, utzi beti zerbait; hartu bakarrik erabiliko duzun landarearen zatia; ez atera sustraitik, moztu ondo hazten jarrai daitezen; ez moztu loreen % 20 baino gehiago, zuhaitzak edo zuhaixkak badira; hartu bakarrik erabiliko duzuna, geroago itzuli ahal zara, edo beste leku batzuetara joan; ez jaso gune babestuetan edo parke naturaletan.

Non: larreetan eta autorik pasatzen ez den bide-ertzetan; goldatu gabeko basoetan; toxikorik erabiltzen ez den ortuetan eta lorategietan; INOIZ EZ areketan, fumigatutako landetan eta ibaiertz kutsatuetan.

Noiz: goizean, ihintza sikatu ondoren; hartu hostoak erabiliko ditugun egunean bertan; hartu loreak goizean eta sustraiak arratsaldean; landareak gorde edo sikatzeko, hobe da ilbehera denean jasotzea.

Materialak: eskularruak, artaziak, paperezko oihalezko poltsa, zumezko saskiak…

WIKIMEDIA / OTTO WILHELM THOMÉ

TALDEA GUREN A
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA

BABESPEKO APARTAMENTUAK

EGONALDIAK EGOITZEAN
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)
944 530 049
www.gurena.com

SUKALDARITZA

Lezamako sukaldaritza ikastaroan egindako errezetak

Oilaskoa curryarekin eta koko-esnearekin

Osagaiak (lau lagunentzat):
Oilaskoa egiteko:
60 cl olio
600 g oilasko
Gatza apur bat
Piperbeltz eho apur bat

Saltsa egiteko:
30 cl olio
250 g kipula
400 ml koko-esne
7 g curry-hauts
1 g berakatz-hauts
Jengibre-hauts apur bat
Kumino-hauts apur bat
Intxaur muskatu apur bat (ehoa)
5 g gatz

Prestatzeko era:
Lehenengo eta behin, oilaskoa salteatuko dugu. Beste alde batetik, kipula bigunduko dugu. Garden dagoenean botako ditugu gainerako osagai guztiak: olioa, koko-esnea, curry-hautsa, berakatz-hautsa, jengibrea, kuminoa, intxaur muskatua eta gatza. Osagaiak birrinduko ditugu, eta oilaskoa saltsa horretan egingo dugu. Nahi izanez gero arrozak, tipuletak eta martorriak lagunduta jan dezakegu.

Bonboiak

Osagaiak
500 g txokolate beltz
250 g gurin
100 g azukre beltz
3 g gatz
250 ml esnegain
100 g txokolate esnedun

Prestatzeko era:
Betegarria egiteko, ontzi batean urtuko ditugu gurina, azukrea eta gatza. Esnegaina bereizirik berotuko dugu. Ontzia sutik kenduko dugu, eta esnegain beroa gehituko dugu. Eragingo dugu. Txokolate esneduna ere botako dugu, eta ondo eragingo dugu. Hozten utziko dugu. Txokolate beltza urtu, eta bonboiak egiteko moldeetan ipiniko dugu. Hozten eta gogortzen utziko dugu. Ondoren, betegarria botako dugu. Bonboiak izozkailura sartuko ditugu azkar hoztu daitezen. Izozkailutik atera, eta gainetik txokolate beltza ipiniko dugu bonboiak ixteko. Kristalizatzen utzi behar ditugu, eta nahi izanez gero, hozkailura sartu ahal ditugu. Gogor daudenean aterako ditugu moldeetatik.

DENBORA-PASAK

Zein loretara helduko da zomorro bakoitza?

SUDOKU ERRAZA

8	1	7					4	5
				5	1	7		6
2	6	5			3			1
4	7		5	6	8			
9	5	1					8	
	3			9		2		
	4		2					
					5		7	9
5	8	9	7	3		1	6	

SUDOKU ZAILA

4			1		8			5
	8	2	4	7			3	
					9		4	
5	2						8	
				8	6		2	1
8		6	9		2			
1	6	8	3	5	4			
		5				3		4
		4						

Suak argitu du gaua

Eguraldi ona lagun, hainbat eta hainbat txorierritar batu ginen ekainaren 23rako gauean suaren inguruan, antzina arbasoek egiten zuten moduan. San Joan bezperako sua dela, Sorginen Gaua dela, ohitura udako solstizioari dago lotuta: egunak gero eta laburragoak direnez, suak pizten dira Eguzkiari indar handiagoa emateko. Era berean, sua elementu garbitzailea da eta sutara alde batera utzi nahi ditugun gauzak eta pentsamenduak botatzen dira zorte txarretik libratzeko.

Suaren inguruan dantzatzen dugu, abestu, jan, ospatu... Gaur egun ekintza ludikoa den ohitura hau sinbologiaz beteta zegoen arbasoentzat, eta baserrietan sua pizteaz gainera, beste erritu batzuk ere izaten ziren. Esate baterako, Amagoia Guezuraga historialariaren, Bertoko soinu-tresnen elkartearen eta Hiru Bat dantza-taldearen eskutik, duela urte batzuk gogora ekarri ziren Zamudion San Joan gaueko ohitura zaharrak. Suaren erritua eta bere esanahia ez ezik, beste ohitura batzuk ere azaldu ziren, hala nola lore-sortari eta urari lotutakoak. “Lore- eta ortuari-sortak prestatzen zituzten, eta San Joan eguneko goizean iturrira joateko ohitura zegoen, ur berria etxera eraman eta edateko”, azaldu zuen Guezuragak.

Whatsapp kanal berria, albisteak jasotzeko

Sartu **labur.eus/aikorkanala** helbidean

Sakatu ***Jarraitu***, albisteak jasotzeko

Sakatu kanpaintxoa🔔, eduki berria dagoenean jakinarazpena jasotzeko

agirre

berritze lanak eta eraikuntzak

ZURE ESPAZIOAK SORTZEN ETA BIZI BERRIA EMATEN

ERA GUZTIETAKO PROIEKTUEN KUDEAKETA

ERREFORMA INTEGRALAK

ERABERRITZE LANAK

- Baserriak
- Egurrezko eta Hormigoizko teilatuak
- Erreteiluak

LOKAL KOMERTZIALAK

ERAIKUNTZA BERRIAK

PORTXEAK ETA EGURREZKO ESTRUKTURAK

PARTZELAK IXTEA

Erri Bide, 2B- 48100 Mungia (Bizkaia)
Telf: 946404413
Instagram: agirreconstruccionesoficial
emal: info@agirreconstrucciones.com
www.agirreconstrucciones.com